



John Heartfield,
Selbstporträt mit dem Polizeichef Zörgiebel, 1929

Paste Emotion

Francisco Javier San Martín

Collage terminoa, sakabanatutako elementuak plano bakarrean lotzen dituen prozedura artistikoa izendatzeko darabilguna, beharbada ez da egokiegia. Itsasgarriaz ari da eta lepoa ematen die *artazi* edo aiztoari, mozketari eta, beraz, zartadurari, zauriari eta darion odolari. Itsasgarria bateratzailea da, aiztoak ordea ikaragarriak izan daitezke. *Collage* kubistarekin edo Hannah Höch-ek Weimarren kontra hartu zuen «sukaldeko aizto» izugarriarekin jarri ziren martxan, Artauden zatikatzarekin eta Dalí eta Buñuelen bizar-xafarekin jarraituz. Artazi izugarriek dena mozten zuten eta gauzetatik zatiak baino ez zituzten uzten. *Collageak* berehala utzi zion arte *teknika* izateari, atalean bizitzeko gaitzen zuen *prozedura* izateko: Erik Satiek bere musikan sartu zuen, Serguéi M. Eisensteinek bere filmetan, Bertolt Brechtek bere antzezlanetan, Louis Aragonek bere eleberrietan... *Collage* prozedura metropoli modernoko inplosiotik eratorritako atal atomizatuen artean ibiltzeko modu bakarra zen. Baina *collageak* —horra bere modernotasuna— ez zuen helburutzat galdutako batasuna, errealtatearen presentzia hain erreala, berreraikitzea; ordea, batasuna inoiz lortuko ez zuen hori prekarioki lotu duen josturaren bizikide izatera gonbidatu gintuen. Subjektu modernoak errealtate egituratua eratzen ez duten objektu eta gertakarien errealtatea hautematen du, orbita irregularretan galdutako zatiak, grabitaziorik eta orbitarik gabeko espazioan, hortaz, sistema baten erreferentziarik gabe. 1869tik, «josteko makina bat eta aterki bat ezustean aurkitu zirenean» sortutako artegatasunetik, 1913ra arte, marrazketako aulki baten gainean bizikleta gurpil batek hein batean errepresentazioaren kapitulu bat itxi zuen unera arte, modernitateak galdutako batasuna etsipenez oroitzeari uzteko urteak igaro ziren eta bere atalekin bizitzen agudo ikasi zuen. Beranduago, *Long Playa* abesti isolatuetan zatitu zen eta horiek *jingle* edo bat-bateko txistuetan, eta luzemetraia hiru minutuko *klipek* ordezkatu zuten: *collageak* hedadura ukatu egiten du eta diskurtsoa makina bat ezpaletan leher arazten du. Baita denbora ere, ataza aniztasuna ez baita kapitalismo aurreratuen ekoizpen zorabiagarriari egokitutako *collagearen* adierazpen kronologikoa baizik.

Collagea jostura bada, zein zauri itxi nahi du? Egia esan, uste dut, bat ere ez, *collageak* ez baitu nahi jatorria bueltatzeko kirurgiaren bidez errealtatea berregokitu, hain zuzen ere, lotura puntuetan ikusgarria izan nahi du, zauria bere horretan agertu nahi du, jostura eta haustura justaposizioan jarri, muga eta atalasea, eta euren arteko bereizketan *adierazle* bilakatu. Mary Shelleyk Doctor Frankensteinen izakia entitate moderno bezala

josi zuen, organismo bateratu bezala, gorputzaren kanona zen Vitrubioaren gizonaren itzal alderantzikatua. Frankensteinen izakia osatzen ez diren orbainekin bizi da, gorputz konbinatorioa eratzen baitu, etengabe berzentzutzen, maitasunerako bezainbat terrorerako zabalik. Frankenstein bezala Suitzan jaitotako Thomas Hirschhornek ebaketa mota honen bi forma bereizi ditu: lehenengoa agerikoa da eta *easy collage* deritzo, medioen erabilgarritasuna eta prozeduren sinpletasunean oinarritua, egungo digitaltasunean are gehiago erraztua; baina bigarrena, *collage truth* deritzona, badirudi era probokatzailan doala arbitrarioritasunaren muinera, *collagearen* anatomia berezko haustura fisikoa eta diskurtsoaren jarraitasun eza agertzera. Bigarren bide hau eginenez, erazutako atalekin gorputz unitarioa berregin ordez, Iván Gómez atalen arteko harreman ezberdinekin gorputz berria marrazten ahalegintzen da. Zerbaitek eztanda egin du, baina era berean, berriro esanahia izango duen halako egitura baten eztanda horren bilaketa ere badago, esplosio eta inplosio zanbulu baten modukoa, eta zentzu honetan, ez dago desordena gorabeheratsurik, diskurtsoaren erregimenari oldartzeko nahikoa izango dena baino ez.

Gorputzaz ari gara, baina *collagea* irudiaren espazioa ere bada, eta berarekin birkonfiguratu egiten du bere hedadura, mugak apurtu eta imajinario arraildua, malgua, alderantzikagarria, mutante eta zentratu gabea hedatu egiten du. Aurretiaz existitzen den irudi ikoniko baten nortasunaren aurrean, artaziaren artistak indar txikitzaile baten moduan egiten du lan, duen logika autoritarioari zatika eztanda egin araziz eta ez muga ez autoritaterik ez duen figura baten obra-hondakinetan irakurtzera gonbidatuz. *Collageak* irudien egonkortasuna gaitzetsi egiten du eta mugatik egiten du bidea. Inorena beretz ekiten dio *collageak* irudia performatzeari, duen botere ikonozentrikoa desorekatzeari, diziplina estatusa, bere autonomia eta kode autista deusezteari. Izan ere, mundu osoan zer da inorena dena, nire azalaren mugatik kanpo gelditzen den guztia?

Itzaletatik ez du erretzen

Jabetze honetatik sortzen dira Iván Gómezek *Itzaletatik ez du erretzen* izenburu generikoaren azpian pazientziatzat marraztu dituen mapa ezpuruak: kronologia eta aberririk gabeko mapak dira, denbora eta lekurik gabeak, historia guztia zeharkatzen dutelako eta mundu osotik egiten dutelako ibilia. Ez dagozkio diziplina bati ere, guztietatik jaten dutelako. Errealtatearekiko duten distantziamentu hori haien makineria ezagutzeko nahiarekin leundu dadin lortzeko, inkontzientek amestu ditzakeen kontra-irudiak egiteko bidean orientatzeko mapak.

Irakurleak —hobeto esateko, erabilizaileak— eskuartearen duen irudi eta soinu multzoa, ez da zahazki erreproduzioen liburu bat, baizik eta originalak dituen irakurketa dispositibo bat, *collageak* ez baitu erreproduziorik onartzen; bere baitan erreproduzio bezala jaio da, aura transferituarekin, unibertso mediatiokoan bizi den artefaktua, *iconosferan*, non orrialdea museoaren horma den eta mp3a kontzertu aretoa.

Itzaletatik ez du erretzen nahita da saiheskorra: ohiko hizkeraren forma hartzen du, baina aldi berean misterio eta mehatxuz josita dago; aholkua ematen du baina oharpena ere bada, bide egokia iradokitzen du baina, ordea, iluntasunarekin limurtzen gaitu. Testu hau prestatzen nuen artean J. G. Ballarden *La exhibición de atrocidades* (Ankerkerien erakusketa) berrirakurri dut. Iván Gómezek berregindako irudiek berehala gogorazki zizkidaten estatubatuar idazleak ezohiko eleberri honetan josi zituen kontakizun piltzarrak. Lerro hauen irakurleak gauza bera egitea ez litzatekeela ideia txarra otu zait: liburu honetako irudiak ikusi eta bere soinu-banda entzutea Ballard-en (2001) liburuko orrialdeekin tartekatuta. Bertan honelako irudiak aurkituko ditu:


Andamiodun kamioi bateko langile talde bat azken atalak itsasten zebilen hogeita hamar metroko luzeradun panel batean, zeinak duna ebakidura bat irudikatzen zuela zirudien. Arreta handiagorekin aztertzean, Nathan doktoreak handitutako atalak antzeman zituen; beheko ezpainaren segmentu bat, sudur baten eskuineko zuloa, emakuzmezkorearen perineoaren atal bat. Anatomista batek baino ez litzuke identifikatuko, guztiak eredu geometriko formal bat bailiran irudikatuta baitzeuden. Behintzat, horietako bostehun kartel beharko lirateke emakume irenslere hori osorik sartzeko, kuantifikatutako hondar itsaso batean etzanda. Helikoptero bat, gizonen egitekoa behatzen, gain-gainean zegoen hegan. Palek eragindako haizeak zenbait kartel askatu zituen. Paper atalak bide gainean gozo zebiltzan; zirimolaturako irribarre bat aparkatutako kotxe baten erradiadorearen kontra estutu zen.

«Orduan zinema heldu zen, —Benjaminek idatzi zuen— eta segundo hamarrenetako dinamitarekin kartzela mundu oso hori leher arazi zuen, hori dela eta orain haren hondakin barrietuen artetik makina bat abentura bidai hasi ditzakegu». Horixe da funtsezko datua, zinema, fotograma, muntaia, kontakizunaren denbora. Baina zinema askoz lehenago heldu zen. Ez dago zalantzarik, Iván Gómezen *collage* hauek askoz hurbilago daudela zinema kontakizunetik, errepresentazio moduei buruzko espekulazio kubistatik baino. Muntaia sinkopatuak dira, orriaren zuriaren gainean metatutako kontakizun frakzioak, itxurazko ordenarik gabe, proiektatu ondoren zoruan pilotuko litzatekeen zinema zinta bat bezalakoak. Eta, beraz, nola irakurri beharko litzateke irudi etorri hau? Suposatzen da testu hau horretarako gida izan beharko litzatekeela edo, behintzat, arrastoren bat, baina ez dago gida posibleirik, hori deszifratzeko *mode d'emploi*rik: irakurle-ikusleak ezagutzen ez duen hiri bateko kaleei eskaintzen dien arreta berarekin ibili beharko du irudien artean, usai eta soinuei adi, edozein marruskadurari edo, Lawrence Durrellek *El cuarteto de Alejandría* (Alexandriako laukotea) lanean proposatzen zuen bezala, «aire putz txikienera adi». Edonola ere, kontakizunean orientatzeko, artistak hiru kolore txertatu ditu — berdea, bioleta eta gorri iluna— kapitulukako ordena antzeko aztarna bat adierazteko.

Zeintzuk izan dira konposiziorako arauak? Prozedura engainatzailea izan daiteke, hasiera batean metaketa eta promiskuitatea nagusi direla dirudien arren, berehala nolabaiteko fitroak agertuz baitoaz, iturburuen depurazio sistemak, narrazio kateen aukeraketak, klimax uneak eta trantsizio tartearak. Itxuran sistematikoa den aukera, erabaki, mihiztaketak eta harreman metodoa da. Halere, sisteman hutsuneak, zorizko zuloak, eragiten dituen metodoa da. Zenbait unetan diziplina bigundu egiten da, lan prozesuak berak ezustean eragin duen ustekabeko logikak gainzkatua. Hori da gakoa, espero ez zuen adarkaduretakoren batek harrituta, artista bere lan propioaren ikusle bilakatzen denean. Baliteke argudioaren tramaren kateaketa jarraitzeko laguntzarik ez eskaintzea erabiltzaileari baina, ordainetan, autoreak aurreikusitako ez dituen eta liburua erabiltzeko ekintzan sortzen diren ustekabeko soluzio aukera eskaintzen dio. Liburu irekia, soinuak; izugarria eta pizgarria, liburu aktiboa bere sorkuntzan eta aktibatzailea bere erabileran.

Itzaletatik ez du erretzen soinuak artefaktua da berarekin datorren Aitor Etxebarriaren musika piezagatik, liburuaren ardatza eratzen duen JSB bezala konposatua; baina, baita Iván Gómezek irudi-saio eran sampleatu dituen narrazio unitateekin lan egin duelako ere, laginen bolumen/tamaina aldatuz, kolorea eta

tonua ekualizatuz, zenbaitetan *scratcha* eginez. Kontakizunaren jarraitasuna koloreak markatutako hiru kapituluatan antolatuta du: hizkuntza, kultura, gorputz eta lanarekin lotura duten gaiak berdea; bioleta pertsonen arteko harremanentzat, maitasun kontakizunentzat eta horiek espazio publikoarekin duten loturaentzat; azkenik, gorri iluna familia eremuko eta oroimenetako esfera itimoenentzat. Hiru kapituluak sutan dauden edukiontzien irudi errepikatuarekin amaitzen dira. Jatorri anizdun irudiak laginduz, liburuak kontakizun bat idazketaren teknologia erretorikoarekin kateatzen du: metaforak eta sinekdoak, paradoxak eta elipsiak. Ez da entsegu grafikoa ez eleberria ere: hibrido jaiotako testua da, non oroimen eta iriziki, ezagutzarekiko maitasuna eta estatistika datuak nahasten diren. Eta zer kontakizun du? Sintaxiari dagokionez, lehortutako egitura nabarmendu dugu; hiztegiari dagokionez, gaia konplexua bezain kitzikagarria da, barruan erabiltzaileak hitzen mundu oso bat aurkituko baitu, artetik eta arkitekturatik hartuak, zein historian zehar irudien arrastoa utzi duten diziplina anitzenetatik hartuak, esate baterako, anatomia, kimika, medikuntza, paleontologia, ingeniari, astronomia, mitologia e. a. Halere, aperitibo bezala, zure jakin-mina eta liburuaren orrietatik noraezean ibiltzeko nahia pizteko, zerrenda labur bat eskainiko dugu —liburuko agerpen ordena, ordena alfabetikoa nahastean duena— ordenarik gabeko fitxategi honetan sedimentatuta aurkituko dituzun zenbait irudiena: adarrak, arkume eta zirujauak, astronautak, atso eta agureak, aulki eta mahaia, batailak, begi asko, beldurraren usaia, betaurrekoak, bonbak eta banderak, dominak, dorre altuak, ebakuntza-gelak, edalontziak, erakusleihoak, eskopetak, eskuak, estatuak, ezpatak, fabrika asko, gorputzak, gozokiak, hankak, hegazkinlariak eta zuloak, hodeiak, hondarrak, irribarreak, izarak, kaleak, kapelak, koadro txikiak, kotxeak eta buruak, langileak, lehoiak eta borrokariak, leiho irekiak, liburuak eta sugarrak, loreak eta familiak, marrazkiak eta zalantzak, marrazkiak, ohatilak, olerkariak, pentsamenduak, psikiatrak, sateliteak, sugeak, tigreak, txakurrak, ukabilak, umeak, urruneko planetak, zabuak, zaldiak, zaratak eta garabiak, zenbait fetu, zenbait harri, zoroak, zuhaitzak, zutabe asko eta gorpuak.



Man Ray, *Hommage à Lautréamont*, 1933.